5.– Txanda hau amaitutakoan finkatu edo berratxiki ez diren lekuz aldarazitako pertsonak, behin betiko euren destinoan dituzten espezialitate, hizkuntza eskakizun eta derrigorrezkotasun data berberak dituzten lanpostuetan, II. txanda honen berratxikipenak amaitutakoan hutsik geratutako horietan, finkatuko dira.

Egoera horretan zenbait pertsona dagoenean, argitaratutako azken Lanpostuen Zerrendak eragindakoek, aurreko prozesuetan lekuz aldarazitakoen aurrean lehentasuna izango dute. Talde horietako bakoitzaren baitan 16. artikuluak ordena ezartzeko zehazten dituen irizpideak erabiliko dira.

6.– Berratxikipen fasearen I. txandan gertaturiko hizkuntz eraldakuntzak, eta 13.2 artikuluak aurreikusitakoaren ondorioz egindako berratxikipen guztiak indarrik gabe geratuko dira baldin eta II. txanda honetan egindako berratxikipenen ondorioz eraldakuntzak eragindako pertsonen behin betiko destinoko espezialitate, hizkuntza eskakizun eta derrigortasun data berberak dituzten plazak hutsik geratu badira.

Egoera horretan zenbait langile izanez gero, 16. artikuluak xedatzen dituen antolamenduko irizpideak erabiliko dira.

*15. artikulua.–* III. Txanda: Lekuz aldarazitako eta berratxiki gabeko pertsonak berratxikitzea.

1.– Txanda honetan, prozesuaren une horretan lekuz aldarazitakoaren izaera dutenen eta berratxiki ez direnen borondatezko berratxikipena ahalbidetuko da; berratxikipena ikastetxe batean baino gehiagotan eskolak ematea eskatzen duten lanpostuetan (Lanpostuen Zerrendan ibiltari gisa adierazten dira) eta beren espezialitate nagusian irakastorduen kopuru nahikorik ez dutelako, beste espezialitate bat irakasteko premia duten lanpostuetan (Lanpostuen Zerrendan misto gisa adierazten dira) egingo da.

Argitaratutako azken Lanpostuen Zerrendak eragindakoek, aurreko prozesuetan lekuz aldarazitakoen aurrean lehentasuna izango dute.

2.– Lanpostu bat esleitzeko, langile interesdunak lortu nahi duen lanpostuari dagokion espezialitatea eduki beharko du. Ondorio horietarako hautatu nahi den lanpostuko espezialitatean lekuz aldarazitakoek lehentasuna izango dute.

3.– Derrigortasun data mugaeguneratua duen hizkuntza eskakizuneko lanpostu bat lortzeko, berau egiaztatuta izatea ezinbestekoa izango da.

2. hizkuntza eskakizuna esleituta duten lanpostuei loturik, IGA egiaztagiri iragankorra duen langileei buruz indarrean dagoen araudiaren aurreikuspenak aplikatuko dira.

4.– Parte hartzaileak jarraian datorren artikuluaren irizpideei jarraiki antolatuko dira.

5.– Las personas desplazadas que, finalizado este turno, no se han fijado ni readscrito, serán fijadas en los puestos de trabajo de la misma especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad que los de su destino definitivo que hubieran quedado vacantes a resultas de las readscripciones efectuadas en este turno II.

Cuando varias personas se encuentren en esta situación, tendrán preferencia los afectados por la última RPT publicada, con respecto a los que resultaron desplazados en procesos anteriores, y, a su vez, dentro de cada uno de estos colectivos se aplicarán los criterios de ordenación del artículo 16.

6.– Las transformaciones lingüísticas que se hayan producido en el turno I de la fase de readscripción, así como las readscripciones producidas como consecuencia de lo previsto en el artículo 13.2, quedarán sin efecto cuando, a resultas de las readscripciones efectuadas en este turno II, hubieran quedado vacantes puestos de trabajo de la misma especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad que los del destino definitivo de las personas afectadas por la transformación.

Si varias personas se encontraran en esta situación, se aplicarán los criterios de ordenación del artículo 16.

*Artículo 15.–* Turno III: readscripción de personas desplazadas y no readscritas.

1.– En este turno se posibilitará la readscripción voluntaria de quienes en este momento del proceso permanecen en situación de desplazados y no se han readscrito, en aquellos puestos de trabajo que impliquen impartición en varios Institutos (señalados en la Relación de Puestos de Trabajo como itinerantes), y aquéllos que, por no tener su especialidad principal una carga lectiva suficiente, implican impartición de otra especialidad (señalados en la Relación de Puestos de Trabajo como mixtos).

Tendrán preferencia las personas afectadas por la última RPT publicada con respecto a las personas que accedieron a la condición de desplazadas en procesos anteriores.

2.– Para la adjudicación de un puesto de trabajo, el personal interesado deberá poseer la especialidad correspondiente al puesto de trabajo al que opta. A estos efectos, tendrán preferencia las personas desplazadas de la especialidad a la que se opta.

3.– Para acceder a un puesto de trabajo que tenga asignado perfil lingüístico de preceptividad vencida, será imprescindible tenerlo acreditado.

Serán de aplicación las previsiones de la normativa vigente respecto al personal que cuenta con la habilitación transitoria IGA en relación con los puestos de trabajo de perfil lingüístico 2.

4.– Las personas participantes se ordenarán de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo siguiente.

IV. KAPITULUA

ANTOLAMENDUKO IRIZPIDEAK

*16. artikulua.–* 1.– Dekretu honek arautzen duen prozesuaren edozein fasetan, eragindakoen arteko lehia gertatuz gero, lehentasuneko ordena, kasuan kasuko eskubide hobeago edo txarragoaren arabera antolatuko da. Eskubide hori jarraian datozen lerrokadetako irizpideekin bat etorriz egiaztatuko da.

2.– LOGSE indarrean jarri baino lehenago katedratiko izaera zuten irakasleen artean, Batxilergoko Katedratiko Numerarioen Kidego desagertutakoetarako edo Irakaskuntza Bateratuen Ikastetxeetako irakasle numerario eta psikologoetarako berariazko lekualdatze-lehiaketetan lortutako plaza batean behin betiko destinoa duten irakasleek, aukera berera aurkezten diren gainerako irakasleek baino eskubide hobeagoa izango dute.

Kasu horretan dauden pertsona batzuk batera aurkeztuko balira, 3. lerrokadako irizpideak eta, egoki izanez gero 4. lerrokadako irizpideak erabiliko lirateke.

3.– Gainerako langileen kasuan, eskubide hobea zein den zehazteko honako bi faktoreen gehikuntzari begiratuko zaio:

a) Behin betiko destinoa parte hartzen duten institutuan bertan izanik, karrerako funtzionario gisa etengabe zerbitzuan emandako denbora:

0,1 puntu hilabeteko, mugarik gabe.

b) Partaide den kidegoan karrerako funtzionario gisa zerbitzuan emandako denbora:

0,1 puntu hilabeteko, mugarik gabe.

4.– Berdinketarik gertatuz gero, balio-taularen a) faktorean lortutako puntuazioak erabakiko du.

Berdinketak jarraituko balu, Bigarren Mailako Irakaskuntzako Kidegoei dagozkien lanetan, ikastetxe publiko zein publiko bilakatutakoetan zerbitzuan emandako denbora erabiliko da.

Berdinketak jarraituko balu, parte hartzean erabiltzen den Kidegorako sarrerako urterik zaharrenak erabakiko luke, eta oraindik ere berdinketak jarraituko balu, hautaketa-prozeduran lortutako puntuaziorik altuenak erabakiko luke.

V. KAPITULUA

PROZEDURA ETA ONDORIOAK

*17. artikulua.–* Prozedura.

1.– Prozesua ikastetxean egingo den bilera batean gauzatuko da. Bilera horretan, eragindako pertsonez gain, Zuzendaritza eta Ikasketa-Burutzako karguak dituztenek ere parte hartuko dute. Prozesuan koordinatzaile lanetan Hezkuntzako Ikuskaritzaren ordezkari bat arituko da.

CAPÍTULO IV

CRITERIOS DE ORDENACIÓN

*Artículo 16.–* 1.– Cuando en cualquiera de las fases del proceso regulado en el presente Decreto se produzca concurrencia entre varias personas afectadas, el orden de prelación vendrá determinado en cada caso por su mejor o peor derecho, que se acreditará conforme a los criterios contenidos en los párrafos siguientes.

2.– El profesorado que, ostentando la condición de catedrático con anterioridad a la entrada en vigor de la LOGSE, tuviera destino definitivo en la plaza obtenida en los concursos de traslados específicos para los extinguidos Cuerpos de Catedráticos numerarios de bachillerato o Profesores numerarios y psicólogos de Centros de Enseñanzas Integradas gozará de mejor derecho que el resto de personas que confluyan en la opción.

Si coincidieran varios, se aplicarán los criterios del párrafo 3 y, en su caso, los del párrafo 4.

3.– Para el resto de personal se determinará el mejor derecho atendiendo al resultado de la suma de los dos factores siguientes:

a) Tiempo de servicio ininterrumpido como funcionario o funcionaria de carrera con destino definitivo en el Instituto en el que participa:

0,1 puntos por mes, sin límite.

b) Tiempo de servicio como funcionario o funcionaria de carrera del Cuerpo con el que participa:

0,1 puntos por mes, sin límite.

4.– En caso de empate, se atenderá a la mayor puntuación en el factor a) del baremo.

De persistir el empate, se utilizará el tiempo de servicio desempeñado en puestos de trabajo correspondientes a Cuerpos de Secundaria, en Centros públicos o publificados.

Si el empate continúa, dirimirá el año más antiguo de ingreso en el Cuerpo con el que participa, y si todavía hubiere coincidencia, la puntuación más alta obtenida en el procedimiento selectivo.

CAPÍTULO V

PROCEDIMIENTO Y EFECTOS

*Artículo 17.–* Procedimiento.

1.– El proceso se materializará en una reunión en el Centro en la que tomarán parte, además de las personas afectadas, las que ostenten los cargos de Dirección y Jefatura de Estudios, así como un representante de la Inspección Educativa, que será quien coordine el proceso.

Ondorio horietarako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak behar den informazioa emango du.

2.– Prozesuaren garapena akta batean formalizatuko da; akta horretan prozesuaren emaitza eta horren bilakaeran gerta litezkeen gorabehera guztiak jasoko dira.

3.– Prozesuaren emaitza EHAAn argitaratuko da.

*18. artikulua.–* Ondorioak.

1.– Berreskuratzea / berratxikitzea / ez atxikitzea.

a) Euren lanpostuaren erabateko titularitatea berreskuratzen duten edo beste lanposturen batean berratxikita geratzen diren irakasleek, postu horretan behin betikoz jardungo dute.

b) II. fasean lanpostu bat lortzeak ez du inolako aldaketarik ekarriko zerbitzuko denbora zenbatzeko ondorioei dagokienez.

c) Dekretu honek arautzen duen prozesuaren bidez lanposturik lortzen ez duten langileak, lekuz aldarazita geratuko dira.

Lekuz aldarazitako irakasleek euren ikastetxeetan behin betiko destinoa gordeko dute. Geroago irakaskuntzako postuak hornitzeko ireki daitezkeen prozeduretan, euren borondatez, parte hartu ahal izango dute eta prozedurotan ezabatutako postuetako titularrentzat ezarritakoari eutsi ahal izango diote.

Adierazitako langile horiek euren ikastetxeetan irakatsiko dute, betiere behin betiko euren destinoko espezialitate, hizkuntza eskakizun eta derrigorrezkotasun datako ordu-premiarik izanez gero. Ordutegi nahikorik izan ezean, behin-behinekoz beste ikastetxeren batean atxikiko lirateke.

Irakasleak lekuz aldarazitakoa izateari utziko dio horren ikastetxeko Lanpostuen Zerrenda argitaratzean espezialitate, hizkuntza eskakizun eta derrigorrezkotasun datako plazen kopurua titularren kopurua baino handiagoa denean edo leku bietan kopuru bera agertzen denean, edo lanpostu-hornikuntzako prozedura batean behin betiko beste destino bat lortzen duenean.

d) Ikastetxean prozesua egin eta bost egun baliodun pasatu baino lehenago, lekuz aldarazitako langileek irakasle ezabatuaren izaera hartzearen aldeko hautua egin ahal izango dute.

e) Prozesu honen emaitzak kasuan kasuko Lanpostuen Zerrendak aipatzen duen ikasturtearen hasieratik aurrera izango du eragina.

2.– Atxikimendu baldintzatuak.

a) IGA iragankorra dutenek 2. hizkuntza eskakizuna esleituta duten lanpostuetara atxikitzeko, ezinbesteko baldintza izango da hizkuntza eskakizun hori egiaztatzea, eta horretarako aplikatzekoa den araudia bete beharko da.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación remitirá la información necesaria a estos efectos.

2.– El desarrollo del proceso se formalizará en un acta, que reflejará el resultado del mismo, así como cuantas incidencias se produzcan en su desarrollo.

3.– El resultado de este proceso se publicará en el BOPV.

*Artículo 18.–* Efectos.

1.– Recuperación/readscripción/no adscripción.

a) El personal que recupere la plena titularidad de su puesto de trabajo o se readscriba en otro puesto de trabajo, lo desempeñará con carácter definitivo.

b) La obtención de un puesto de trabajo en la fase II no supondrá variación alguna a los efectos de cómputo de tiempos de servicio.

c) El personal que no obtenga puesto de trabajo a través del proceso regulado en el presente Decreto, quedará en situación de desplazado.

El profesorado desplazado conservará el destino definitivo en su Centro, pudiendo participar voluntariamente en los sucesivos procedimientos de provisión de puestos docentes que se convoquen, en los cuales podrá acogerse a lo establecido para los titulares de los puestos suprimidos.

Dicho personal impartirá docencia en su Centro siempre que existiera necesidad horaria en la especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad de su destino definitivo. En caso de no existir horario suficiente será adscrito provisionalmente en otro Centro.

Una persona dejará de ser desplazada cuando en su Centro la Relación de Puestos de Trabajo publique un número de plazas de su especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad igual o superior al número de titulares o cuando obtenga otro destino definitivo en un procedimiento de provisión de puestos de trabajo.

d) El personal desplazado podrá optar por adquirir la condición de suprimido en el plazo de cinco días hábiles desde la realización del proceso en su centro.

e) El resultado de este proceso tendrá efectos desde la fecha de inicio del curso escolar a que se refiere la correspondiente RPT.

2.– Adscripciones de carácter condicionado.

a) La adscripción de las personas que cuenten con habilitación transitoria IGA a puestos que tengan asignado perfil lingüístico 2, estará condicionada a la acreditación de dicho perfil lingüístico, para lo cual se estará a lo dispuesto en la normativa aplicable.

b) Hizkuntz eskakizun hori egiaztatu ez duten pertsonak hizkuntz eskakizuna derrigorrezkotasun data geroratuarekin esleituta duten lanpostuetara atxikitzeko, ezinbesteko baldintza izango da Lanpostuen Zerrendan ezartzen den epearen barruan hizkuntz eskakizuna egiaztatzea.

c) Lanpostuaren hizkuntz eraldakuntzak, hizkuntz eskakizunak ezartzeko irizpideak eta irakaskuntzako lanpostuetan derrigorrezkotasun datak ezartzen dituen martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusten diren ondorioak izango ditu. Beraz, atxikimendua egiteko, dagokion epearen barruan hizkuntza eskakizuna egiaztatzea ezinbesteko baldintza izango da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–* Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden eta Dekretu honek ukitzen dituen hezkuntza mailetan eskolak ematen dituzten lan-legepeko irakasle finkoek, Lanpostuen Zerrendak bere Ikastetxeetan berariaz eratzen duen bere espezialitate eta hizkuntza eskakizuneko lanpostuetan zerbitzua egiten jarraituko dute, lehendik Administrazioarekin zuten erlazio berberaz.

Lanpostua gordetzeko eskubidea duten lan-legepeko irakasle finkoek lanpostua berriro beteko dute gordetzeko arrazoia bertan behera geratzen denean, lehendik Administrazioarekin zuten erlazio berberarekin. Horretarako, bere espezialitateko lanpostua gordeko zaie.

Antolaketari loturiko arrazoien ondorioz funtzioek ez badute irauten eta lanpostua Lanpostuen Zerrendan ezabatzen bada, ukitutako langileak beste ikastetxe batzuetara lekualdatuak izango dira; beste lanpostu bat esleituko zaie behin betiko betetzeko.

Lekualdaketa egiterakoan, arreta handia jarriko da berau doakion pertsonarentzat kaltegarria izan ez dadin, bete gabe dauden lanpostu guztiak kontuan izanik, eta ikasturtearen hasierako esleipen-prozesua baino lehen gauzatuko da.

Lanpostu hauek iraungi beharrekotzat aitortuak izango dira.

*Bigarrena.–* Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako irakasle berezien Kidegoko karrerako funtzionarioek, bai eta «Etxea» edo «Jarduerak» espezialitateetako irakasleek ere, Lanpostuen Zerrendak beren institutuan berariaz eratzen duen beren espezialitate eta hizkuntza eskakizuneko lanpostuan zerbitzua egiten jarraituko dute.

b) La adscripción a puestos que tengan asignado perfil lingüístico con fecha de preceptividad diferida por parte de quienes no hayan acreditado dicho perfil estará condicionada a la acreditación del perfil en el plazo establecido en la Relación de Puestos de Trabajo.

c) La transformación lingüística del puesto de trabajo tendrá los efectos previstos en la Disposición adicional segunda del Decreto 47/1993, de 9 de marzo, por el que se establecen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes. Será, por tanto, una adscripción condicionada a la acreditación del perfil lingüístico en el plazo correspondiente.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* De acuerdo con lo dispuesto en las Leyes 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el personal laboral docente fijo dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco que imparte docencia en los niveles educativos a que afecta este Decreto continuará prestando servicio en el puesto de trabajo de su especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad que la Relación de Puestos de Trabajo configura de manera específica en su Centro, con la misma relación que anteriormente ostentara con la Administración.

El personal laboral docente fijo que tenga derecho a reserva de puesto de trabajo volverá a su desempeño desde que cese la causa que la motivó, con la misma relación que anteriormente ostentara con la Administración. Para ello le será reservado un puesto de trabajo de su especialidad.

En el supuesto en que por razones organizativas no permanezcan las funciones y el puesto se suprima en la Relación de Puestos de Trabajo, el personal afectado será objeto de traslado a otro Centro, asignándole otro puesto para su desempeño definitivo.

El traslado se efectuará de forma que, atendidas las circunstancias, resulte lo menos gravoso posible a la persona afectada, teniendo en cuenta todos los puestos de trabajo vacantes que existan, y se materializará con anterioridad al proceso de adjudicación de comienzo de curso.

Estos puestos de trabajo serán declarados a extinguir.

*Segunda.–* Los funcionarios y funcionarias de carrera del Cuerpo de Profesores y Profesoras especiales de Institutos Técnicos de Enseñanzas Medias, así como el personal docente de las especialidades «Hogar» o «Actividades» continuará prestando servicio en el puesto de trabajo de su especialidad y perfil lingüístico que la Relación de Puestos de Trabajo configura de manera específica en su Instituto.

Antolaketari loturiko arrazoien ondorioz funtzioek ez badute irauten eta lanpostua Lanpostuen Zerrendan ezabatzen bada, ukitutako langileak beste ikastetxe batzuetara lekualdatuak izango dira; beste lanpostu bat esleituko zaie behin betiko betetzeko.

Lekualdaketa egiterakoan, arreta handia jarriko da berau doakion pertsonarentzat kaltegarria izan ez dadin, bete gabe dauden lanpostu guztiak kontuan izanik, Dekretu honetako Lehen Xedapen Gehigarrian bildutako egoeretan erabili direnak izan ezik, eta ikasturtearen hasierako esleipen-prozesua baino lehenago gauzatuko da.

Lanpostu hauek iraungi beharrekotzat aitortuak izango dira.

*Hirugarrena.–* Ikastetxeen bategiteak egiten direnean, Dekretu honek arautzen duen prozedurak ondokoa izango du kontuan: alde batetik, bategitea egin baino lehenago zeuden institutuetan langileen behin betiko destinoa zen lanpostuaren espezialitatea, hizkuntza eskakizuna eta derrigorrezkotasun data, eta bestetik, emaitzazko ikastetxean espezialitate, hizkuntza eskakizun eta derrigorrezkotasun data horietako eratzen diren lanpostuen guztizko kopurua.

Irakaskuntza Ertaineko institutu teknikoko irakasle berezien kidegoko lan-legepeko langileak edota langile funtzionarioak dauden bategiteetan, Lehen eta Bigarren Xedapen Gehigarrietan jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira.

*Laugarrena.–* Ikastetxeetako xehekapen edo integrazioko prozesuetan ezinbestekoa da prozesu horiek eragindako ikastetxe bakoitzaren Lanpostuen Zerrendan eragiten dituzten aldaketak zehaztea.

Ondorio horietarako, honako arauak aintzat hartuko dira:

a) Ikastetxeen Zuzendaritzaren planifikazioa aintzat harturik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatuko du eta Eusko Jaurlaritzak zehaztuko du jatorrizko ikastetxetik (ikastetxe jaulkitzailetik) bereiziko diren lanpostuetako espezialitatea, hizkuntz eskakizuna, derrigorrezkotasun data eta kopurua.

Bereiziko diren lanpostuak, printzipioz, ikastetxe berriaren (ikastetxe hartzailearen) Lanpostuen Zerrendan sartuko direnak izango dira, betiere hizkuntza eskakizun eta derrigorrezkotasun datari dagokienez beharrezkoak izan daitezkeen aldaketak baztertu gabe.

b) Ikastetxe hartzailera sartuko diren irakasleak zehazteko, aurrez, ikastetxe jaulkitzailean langileak berriro banatzeko prozesuari, Dekretu honek arautzen duen prozesuari, ekingo zaio. Dekretuak ezartzen dituen irizpideak aintzat hartuko dira eta prozesuan xehekapen / integrazioko lanpostuak sartuko dira.

En el supuesto en que por razones organizativas no permanezcan las funciones y el puesto se suprima en la Relación de Puestos de Trabajo, el personal afectado será objeto de traslado a otro Centro, asignándole otro puesto para su desempeño definitivo.

El traslado se efectuará de forma que, atendidas las circunstancias, resulte lo menos gravoso posible a la persona afectada, teniendo en cuenta todos los puestos de trabajo vacantes que existan, salvo los que se hayan utilizado en las situaciones recogidas en la Disposición Adicional primera de este Decreto, y se materializará con anterioridad al proceso de adjudicación de comienzo de curso.

Estos puestos de trabajo serán declarados a extinguir.

*Tercera.–* Cuando se produzcan fusiones de Centros, el procedimiento regulado en el presente Decreto tendrá en cuenta, por una parte, la especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad de la plaza que constituía el destino definitivo del personal en los Centros preexistentes a la fusión y, por otra parte, el número total de plazas de la especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad que se configuran en el Centro resultante.

En aquéllas fusiones en las que hubiere personal laboral y/o personal funcionario del Cuerpo de profesores y profesoras especiales de institutos técnicos de enseñanzas medias, serán de aplicación las previsiones contenidas en las Disposiciones Adicionales Primera y Segunda.

*Cuarta.–* En los procesos de desglose/integración de Centros se hace preciso concretar las modificaciones que tales procesos provocan en las Relaciones de Puestos de Trabajo de cada uno de los Centros afectados.

A estos efectos, se tendrán en cuenta las siguientes reglas:

a) El Gobierno Vasco, a propuesta del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en función de la planificación efectuada por la Dirección de Centros Escolares, determinará el número y la especialidad-perfil lingüístico-fecha de preceptividad de los puestos de trabajo que se desglosan del Centro de origen (Centro emisor).

Los puestos de trabajo desglosados serán, en principio, los que se integren en la Relación de Puestos de Trabajo del nuevo Centro (Centro receptor), a salvo de los ajustes de perfil lingüístico y/o fecha de preceptividad que sean necesarios.

b) Las personas que se integran en el Centro receptor se determinarán tras la celebración en el Centro emisor del proceso de redistribución de personal regulado en el presente Decreto, conforme a los criterios que se establecen en el mismo, e incluyendo en tal proceso los puestos de trabajo objeto del desglose/integración.

c) Xehekapen / integrazioak ikastetxe jaulkitzailearen lanpostu guztietan eraginik izango balu, eta ikastetxe horretako gainerako lanpostu guztiak desagertuko balira, euren lanpostua ikastetxe berrira sartu ezean, irakasle horiek irakasle ezabatuaren izaera izango dute.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehena.–* Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak xedatzen duen hezkuntza sistema ezartzeko aldi iragankorra amaitu bitartean, eta lanpostu-hornikuntzako prozeduretan irispideko aukera irekia den bitartean, II. faseko II. txandan titulazioaren bidezko berratxikipena ere ahalbidetuko da.

Horretarako, urtarrilaren 18ko 7/2000 Dekretuak III. eranskinean espezialitate bakoitzerako adierazten dituen tituluetakoren bat izatea beharrezkoa izango da.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, lanpostu jakin batean espezialitatearen betebeharrekoa betetzen dutenek, titulazioaren bidezko irispidea baino ez dutenen aurrean lehentasuna izango dute lanpostu horretan.

Titulazioaren bidez beste lanpostu batean berratxikita izateak ez dakar, inolaz ere, lanpostu horri dagokion espezialitatea eskuratzea. Horrez gain, horrek ez du eraginik izango urriaren 6ko 1635/1995 eta apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuetan jasotzen den aldi bakar bateko mugapenaren ondorioetarako.

*Bigarrena.–* Espezialitate korrelatibo guztien lanpostuak aintzat hartuko dira. Espezialitateen arteko korrelazioa Dekretu honen II. eranskinak ezarritakoa izango da.

Espezialitate korrelatibo batekin baino gehiagorekin harremanetan dauden espezialitateetan, eragindako irakasleak, lehenbizikoz eta behingoz baino ez, horietako edozeinetan atxikiko dira (horiek izan artean), eta aintzat hartuko da euren ikastetxeetan egin beharreko aparteko bileretan haiek adierazten duten lehentasuna.

Geroago langileak berriro banatzeko prozesurik eginez gero, lehenagoko lerrokadan adierazten den hautua egin duen funtzionarioa, aurreko prozesuan aukeratu zuen espezialitate korrelatiboan, finkatu zen horretan, lekuz aldarazitako irakasle gisa geratuko da. Bakar-bakarrik espezialitate horretako plaza hutsetan berreskuratu ahal izango du titularitatea, berratxikitzeko fasean, aurreneko hautaketan eskatu ez zuen espezialitate korrelatiboren batera iristeko aukera baztertu gabe.

c) Si el desglose/integración afectara a la totalidad de los puestos de trabajo existentes en el Centro emisor, suprimiéndose el resto de puestos de trabajo del mismo, adquirirán la condición de suprimidas aquellas personas cuyos puestos de trabajo no han resultado integrados en el Centro receptor.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* Hasta que finalice la etapa transitoria de implantación del sistema educativo establecido en la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, y en tanto se mantenga como una posibilidad de acceso abierta en los procedimientos de provisión de puestos de trabajo, se posibilitará igualmente la readscripción por titulación en el turno II de la fase II.

Para ello, será necesario poseer alguna de las titulaciones que para cada especialidad se recogen en el Anexo III del Decreto 7/2000, de 18 de enero.

Sin perjuicio de lo anterior, quienes reúnan el requisito de especialidad tendrán preferencia respecto al mismo puesto de trabajo sobre quienes únicamente puedan acceder por titulación.

La readscripción en otro puesto de trabajo por titulación no supone, en ningún caso, la adquisición de la especialidad correspondiente al puesto de trabajo. A su vez, no computará a efectos de la limitación de una sola vez, recogida en los Reales Decretos 1635/1995, de 6 de octubre, y 777/1998, de 30 de abril.

*Segunda.–* Se tendrán en cuenta los puestos de trabajo de todas las especialidades que resulten correlativas. La correlación entre especialidades será la establecida en el Anexo II de este Decreto.

En aquellas especialidades relacionadas con más de una especialidad correlativa, el personal afectado se fijará, por una primera y única vez, en puestos de trabajo de cualquiera de éstas (en tanto existan), de acuerdo con la opción que efectúe en la propia reunión extraordinaria a celebrar en su Centro.

En el caso de que en ulteriores procesos de redistribución del personal el funcionario o funcionaria que hubiera hecho ejercicio de la opción prevista en el párrafo anterior, quedara desplazado de la especialidad correlativa por la que optó y se fijó en un proceso anterior, únicamente recuperará la titularidad en plazas vacantes de esa misma especialidad, sin perjuicio de que en la fase de readscripción pueda optar a alguna de las especialidades correlativas a las que no accedió en su primera elección.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari Dekretu honetan ezarritakoa burutzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak agintzeko ahalmena ematen zaio.

*Bigarrena.–* Honako Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko apirilaren 16an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza a la Consejera de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo de lo establecido en el presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

# I. ERANSKINA

## CURRICULUM EZBERDINAK ERATZEKO LANPOSTUETARA IRISTEKO ESPEZIALITATEAK

| EREMUA | IRISPIDEKO ESPEZIALITATEAK |
|---|---|
| Hizkuntza- eta gizarte-eremuko lanpostua | Gaztelania eta Literatura<br>Euskal Hizkuntza eta Literatura<br>Geografia eta historia<br>Latina<br>Greziera<br>Ingelesa<br>Frantsesa<br>Filosofia |
| Zientzia eta teknologiako eremuko lanpostua | Matematikak<br>Fisika eta kimika<br>Biologia eta geologia<br>Teknologia |

# II. ERANSKINA

## ESPEZIALITATEEN ZERRENDA

## BIGARREN IRAKASKUNTZAKO IRAKASLEAK

| ESPEZIALITATE ZAHARRA | ESPEZIALITATE BERRIA |
|---|---|
| Natur Zientziak | Biologia eta Geologia |
| Naturako Zientziak | Biologia eta Geologia |
| Marrazketa | Marrazketa |
| Marrazketa eta Marrazketaren Teoria | Marrazketa |
| Gorputz Hezkuntza | Gorputz Hezkuntza |
| Matematikak | Matematikak |
| Fisika eta Kimika | Fisika eta Kimika |
| Geografia eta Historia | Geografia eta Historia |
| Heziketa Humanistikoa | Geografia eta Historia |
| Filosofia | Filosofia |
| Latina | Latina |
| Greziera | Greziera |
| Hizkuntza eta literatura | Gaztelania eta Literatura |
| Euskal Hizkuntza eta Literatura | Euskal Hizkuntza eta Literatura |
| Ingelesa | Ingelesa |
| Frantsesa | Frantsesa |
| Alemanera | Alemanera |
| Musika | Musika |

| ESPEZIALITATE ZAHARRA | ESPEZIALITATE BERRIA |
|---|---|
| Administrazio eta Merkataritzako Teknologia | Enpresen Administrazioa<br>Merkataritza Antolamendua eta Kudeaketa |
| Kudeaketa Informatikako Teknologia | Informatika |
| Nekazaritzako Teknologia | Elikadura Industriako Prozesuak<br>Nekazaritza Produkzioko Prozesuak. |
| Arte Grafikoetako Teknologia | Arte Grafikoetako Prozesuak eta Produktuak |
| Automozio Teknologia | Ibilgailuak Mantentzeko Antolamendua eta Prozesuak |
| Eraikuntza eta Obretarako Teknologia | Eraikin Zibilak eta Eraikuntza |
| Delineatze Teknologia | Eraikin Zibilak eta Eraikuntza<br>Fabrikazio Mekanikoko<br>Antolamendua eta Proiektuak<br>Energi Sistemetako Antolamendua eta Proiektuak |
| Teknologia Elektrikoa | Energi Sistemetako Antolamendua eta Proiektuak<br>Sistema Elektrotekniko eta Automatikoak |
| Elektronikako Teknologia | Sistema Elektronikoak |
| Ostalaritza eta Turismoko Teknologia | Ostalaritza eta Turismoa |
| Irudi eta Soinuko Teknologia | Hedabideak eta Hedabideetako Prozesuak |
| Zuraren Teknologia | Zur eta Altzarietako Prozesuak eta Produktuak |
| Itsas-Arrantza Teknologia | Itsas Nabigazioa eta Instalazioak |
| Metalaren Teknologia | Fabrikazio Mekanikoko Antolamendua eta Proiektuak |
| Moda eta Jantzigintzako Teknologia | Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintzako Prozesuak eta Produktuak |
| Ileapainketako eta Estetikako Teknologia | Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak |
| Larrugintzako Teknologia | Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintzako Prozesuak eta Produktuak |
| Teknologia Kimikoa | Elikagaien Industriako Prozesuak<br>Industri Analisiak eta Kimika |
| Teknologia Sanitarioa | Prozesu Sanitarioak<br>Diagnosi Prozesu Klinikoak eta Produktu Ortoprotesikoak |
| Erkidegorako Zerbitzuen Teknologia | Esku-hartze Soziokomunitarioa |
| Ehungintzako Teknologia | Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintzako Prozesuak eta Produktuak |
| Enpresako Prestakuntza | Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea |
| Ekonomia | Ekonomia |
| Teknologia | Teknologia |
| Psikologia-Pedagogia | Psikologia-Pedagogia |

LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK

| ESPEZIALITATE ZAHARRA | ESPEZIALITATE BERRIA |
|---|---|
| Administrazio eta Merkataritzako Praktikak | Administrazio Kudeaketako Prozesuak Merkataritza Prozesuak |
| Nekazaritza Praktikak | Elikagaigintzako Eragiketak eta Ekipoak<br>Nekazaritza Produkzioko Eragiketak eta Ekipoak |
| Arte Grafikoetako Lantegia | Arte Grafikoetako Produkzioa |
| Automozioko Praktikak | Ibilgailuak Mantentzea |
| Eraikuntzen eta Obren Lantegia | Eraikuntza Proiektuen Bulegoa |
| Delineatze Praktikak | Eraikuntza Proiektuen Bulegoa<br>Fabrikazio Mekanikoko Proiektuen Bulegoa |
| Elektrizitate Praktikak | Ekipo Termikoak eta Fluidoetakoak Instalatzea eta Mantentzea<br>Instalazio Elektroteknikoak |
| Elektronikako Praktikak | Ekipo Elektronikoak |
| Ostalaritza eta Turismoko Praktikak | Sukaldaritza eta Gozogintza<br>Jatetxeetako Zerbitzuak |
| Irudi eta Soinuko Laborategiko Praktikak | Irudi eta Soinuko Teknikak eta Prozedurak |
| Kudeaketa Informatikako Praktikak | Sistema eta Aplikazio Informatikoak |
| Kimikako Praktikak | Elikagaigintzako Eragiketak eta Ekipoak<br>Laborategia<br>Prozesuetako Eragiketak |
| Zuraren Lantegia | Zurgintza eta Altzarigintzako Instalazioa |
| Itsas-Arrantzako Praktikak | Makinak, Zerbitzuak eta Produkzioa |
| Metaleko Praktikak | Makinen Mekanizazioa eta Mantentzea<br>Soldadura |
| Moda eta Jantzigintzako Lantegia | Patroigintza eta Jantzigintza |
| Ileapainketako eta Estetikako Lantegia | Estetika<br>Ileapainketa |
| Larrugintzako Lantegia | Patroigintza eta Jantzigintza |
| Praktika Sanitarioak | Diagnosi Klinikoko eta Ortoprotesikoko Prozedurak<br>Prozedura Sanitario eta Asistentzialak |
| Erkidegorako Zerbitzuetako Praktikak | Erkidegorako Zerbitzuak |
| Ehungintzako Lantegia | Ehungintza eta Trataera Fisiko eta Kimikoak |
| (Teknologia) | (Teknologia) |

ZEREGINAK IKASTEKO GELETAKO LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK

| ESPEZIALITATE ZAHARRA | ESPEZIALITATE BERRIA |
|---|---|
| Praktikak | Zereginak Ikasteko Gela |

## *ANEXO I*

## *ESPECIALIDADES DE ACCESO A PUESTOS DE TRABAJO DE DIVERSIFICACIÓN CURRICULAR*

| *ÁMBITO* | *ESPECIALIDADES DE ACCESO* |
|---|---|
| *Puesto de trabajo de ámbito lingüístico-social* | *Lengua Castellana y Literatura*<br>*Lengua Vasca y Literatura*<br>*Geografía e historia*<br>*Latín*<br>*Griego*<br>*Inglés*<br>*Francés*<br>*Filosofía* |
| *Puesto de trabajo de ámbito científico-tecnológico* | *Matemáticas*<br>*Física y química*<br>*Biología y geología*<br>*Tecnología* |

## *ANEXO II*

## *CORRELACIÓN DE ESPECIALIDADES*

## *PROFESORES Y PROFESORAS DE ENSEÑANZA SECUNDARIA*

| *ESPECIALIDAD ANTIGUA* | *ESPECIALIDAD NUEVA* |
|---|---|
| *Ciencias naturales* | *Biología y Geología* |
| *Ciencias de la naturaleza* | *Biología y Geología* |
| *Dibujo* | *Dibujo* |
| *Dibujo y Teoría del dibujo* | *Dibujo* |
| *Educación física* | *Educación física* |
| *Matemáticas* | *Matemáticas* |
| *Física y química* | *Física y química* |
| *Geografía e historia* | *Geografía e historia* |
| *Formación humanística* | *Geografía e historia* |
| *Filosofía* | *Filosofía* |
| *Latín* | *Latín* |
| *Griego* | *Griego* |
| *Lengua y literatura españolas* | *Lengua castellana y literatura* |
| *Lengua y literatura vasca* | *Lengua y literatura vasca* |
| *Inglés* | *Inglés* |
| *Francés* | *Francés* |
| *Alemán* | *Alemán* |
| *Música* | *Música* |
| *Tecnología Administrativa y Comercial* | *Administración de Empresas*<br>*Organización y Gestión Comercial* |

| *ESPECIALIDAD ANTIGUA* | *ESPECIALIDAD NUEVA* |
|---|---|
| *Tecnología de Informática de Gestión* | *Informática* |
| *Tecnología Agraria* | *Procesos en la Industria Alimentaria.*<br>*Procesos de Producción Agraria* |
| *Tecnología de Artes Gráficas* | *Procesos y Productos en Artes Gráficas* |
| *Tecnología de Automoción* | *Organización y Procesos de Mantenimiento de Vehículos* |
| *Tecnología de Construcción y Obras* | *Construcciones Civiles y Edificación* |
| *Tecnología de Delineación* | *Construcciones Civiles y Edificación*<br>*Organización y Proyectos de Fabricación Mecánica*<br>*Organización y Proyectos de Sistemas Energéticos* |
| *Tecnología Eléctrica* | *Organización y Proyectos de Sistemas Energéticos*<br>*Sistemas Electrotécnicos y Automáticos* |
| *Tecnología de Electrónica* | *Sistemas Electrónicos* |
| *Tecnología de Hostelería y Turismo* | *Hostelería y Turismo* |
| *Tecnología de Imagen y Sonido* | *Procesos y Medios de Comunicación* |
| *Tecnología de la Madera* | *Procesos y Productos en Madera y Mueble* |
| *Tecnología Marítimo-Pesquera* | *Navegación e Instalaciones Marinas* |
| *Tecnología del Metal* | *Organización y Proyectos de Fabricación Mecánica* |
| *Tecnología de Moda y Confección* | *Procesos y Productos de Textil, Confección y Piel* |
| *Tecnología de Peluquería y Estética* | *Asesoría y Procesos de Imagen Personal* |
| *Tecnología de la Piel* | *Procesos y Productos de Textil, Confección y Piel* |
| *Tecnología Química* | *Procesos en la Industria Alimentaria*<br>*Análisis y Química Industrial* |
| *Tecnología Sanitaria* | *Procesos Sanitarios*<br>*Procesos Diagnósticos Clínicos y Productos Ortoprotésicos* |
| *Tecnología de Servicios a la Comunidad* | *Intervención Sociocomunitaria* |
| *Tecnología Textil* | *Procesos y Productos de Textil, Confección y Piel* |
| *Formación Empresarial* | *Formación y Orientación Laboral* |
| *Economía* | *Economía* |
| *Tecnología* | *Tecnología* |
| *Psicología-pedagogía* | *Psicología-pedagogía* |

*PROFESORES TÉCNICOS Y PROFESORAS TECNICAS DE FORMACION PROFESIONAL*

| *ESPECIALIDAD ANTIGUA* | *ESPECIALIDAD NUEVA* |
|---|---|
| *Prácticas Administrativas y Comerciales* | *Procesos de Gestión Administrativa*<br>*Procesos Comerciales* |
| *Prácticas Agrarias* | *Operaciones y Equipos de Elaboración*<br>*de Productos Alimentarios.*<br>*Operaciones y Equipos de Producción Agraria* |
| *Taller de Artes Gráficas* | *Producción en Artes Gráficas* |
| *Prácticas de Automoción* | *Mantenimiento de Vehículos* |
| *Taller de Construcciones y Obras* | *Oficina de Proyectos de Construcción* |

| *ESPECIALIDAD ANTIGUA* | *ESPECIALIDAD NUEVA* |
|---|---|
| *Prácticas de Delineación* | *Oficina de Proyectos de Construcción*<br>*Oficina de Proyectos de Fabricación Mecánica* |
| *Prácticas de Electricidad* | *Instalación y Mantenimiento de Equipos Térmicos y de Fluidos.*<br>*Instalaciones Electrotécnicas* |
| *Prácticas de Electrónica* | *Equipos Electrónicos* |
| *Prácticas de Hostelería y Turismo* | *Cocina y Pastelería*<br>*Servicios de Restauración* |
| *Prácticas de Laboratorio de Imagen y Sonido* | *Técnicas y Procedimientos de Imagen y Sonido* |
| *Prácticas de Informática de Gestión* | *Sistemas y Aplicaciones Informáticos* |
| *Prácticas de Química* | *Operaciones y Equipos de Elaboración de Productos Alimentarios.*<br>*Laboratorio*<br>*Operaciones de Procesos* |
| *Taller de la Madera* | *Fabricación e Instalación de Carpintería y Mueble* |
| *Prácticas Marítimo-Pesqueras* | *Máquinas, Servicios y Producción* |
| *Prácticas de Metal* | *Mecanizado y Mantenimiento de Máquinas*<br>*Soldadura* |
| *Taller de Moda y Confección* | *Patronaje y Confección* |
| *Taller de Peluquería y Estética* | *Estética*<br>*Peluquería* |
| *Taller de la Piel* | *Patronaje y Confección* |
| *Prácticas Sanitarias* | *Procedimientos de Diagnóstico Clínico y Ortoprotésico*<br>*Procedimientos Sanitarios y Asistenciales* |
| *Prácticas de Servicios a la Comunidad* | *Servicios a la Comunidad* |
| *Taller Textil* | *Producción Textil y Tratamientos Físico-Químicos* |
| *(Tecnología)* | *(Tecnología)* |

*PROFESORES TÉCNICOS Y PROFESORAS TECNICAS DE FORMACION PROFESIONAL EN AULAS DE APRENDIZAJE DE TAREAS*

| *ESPECIALIDAD ANTIGUA* | *ESPECIALIDAD NUEVA* |
|---|---|
| *Prácticas* | *Aula de Aprendizaje de Tareas* |